


BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresarentzat gure bezeroekin dugun harremana oso garrantzitsua da, pertsonala eta automatizatua izango da, beraz, bi modu hauetan gauzatuko da.

Lehenik eta behin, Gasteiz hiri osoan zehar kasetak txikiak egongo dira, eta bertan gure bezeroei arreta emango diegu.



Zerbitzu automatizatua eskainiko dugu gure orria sortzerakoan, web gunean: gure enpresaren oinarrizko informazioa, gure misioa, eskaintzen ditugun konponketa motak, hainbat aholku, eta Euskal Herriko txirrindulari ospetsuei egindako elkarrizketak egongo dira. Gainera, sare sozialak (Facebook, Instagram, Pinterest, Twitter, etab.) erabiliko ditugu, izan ere, gehien erabiltzen direnak baitira gaur egun. Uste dugu horrela azkar ezagutaraziko dugula elkar.



Azkenik, bezeroa lotuta mantentzeko egingo ditugun ekintzak honako hauek izango dira:

- Enpresa hau udalaren parte denez, udal txartela duten bezeroek ordaintzeko erabili ahal izango dute; ez dutenek, berriz, metalikoan edo bankuko txartelarekin ordaindu beharko dute.
- E-mailen bidez bidalketak egingo ditugu nobedadeen berri emateko, eta, horrez gain, sare sozialetan argitaratuko ditugu.
- Konponketa-tailerrak egingo ditugu hilean behin gure bezeroekin. Trikimailu batzuk erakutsiko dizkiegu.

